

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### **2016 ekitaldiko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainaldia**

Herritar guztiei jakinarazten zaie 2016 ekitaldiko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainagiriaren kobrantza egingo dela, ondorengo xehetasunak kontuan hartuz:

Borondatez ordaintzeko epea: 2016ko azaroaren 9tik 2017ko urtarrilaren 8ra, biak barne.

Ordaintzeko modua: Helbideratutako ordainagiriak 2016ko abenduaren 12an kontutik kobratuko dira.

Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira. Ordainketa entitate kolaboratzaileen bidez egin beharko da (Kutxabank eta Laboral Kutxa), eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko da. Azaroaren 30erako zergadunak ordainagiria jaso ez badu, Udaletxean eskatu beharko du bulego ordutegian.

Borondatezko epea igaro ondoren, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta ordaindugabeko kuotak ehuneko 5eko gailkarguaz kobratuko dira, otsailaren 28ko Arabako 2005/06 Foru Arauaren 28 artikulua xedatutakoari jarraituz.

Aramaion, 2016ko urriaren 25ean

*Alkatea*

**LIERNI ALTUNA UGARTE**